

BUENABENTURA URIARTE

ZEANURI

Erri eder bat goratu nai dot
Gorbea baño gorago,
Zeanuri da aren oñarri,
izen ona garaiago:
bere semeak nor geiagoka
jo dabe zintzo ordago,
elizan eta Euskal errian
nor eurak baño geiago?

NORTASUNA

"Aurra azten ari zen eta nortasunez finkatzen"
(Luk. 1-80).

Nortasunez finkatu. Ez da gauza erreza nortasunaren sustraiak nundik datozen argi ta garbi jakitea. Gaurko sikolojiak ba dau, gai ontaz, zer ikasi eta esan bearra.

Baña nork ukatu nortasunaren sustrai sakonak etxe ta sendi barruan dagozala?

Egia esateko Jaunagandik datorkigu bizibiderako gaitasun berezi bat, baño umearen nortasunak guraso eta sendiaren lur-giroa, giro bero ta biguna bear dau bere izakera, fede bizitza eta gizatasuna ondo finkatzeko.

Gaur egun nortasunari buruz ikaste zorrotzak egiten diardugu. Euskal errian, barriz, importantzi aundia emon jako beti. Gure artean alde galanta dago "nor bait etorri da" esatetik. "nor dan bat etorri da" esatera. Erderazko "personaje" gure artean jaun aundi bat da; guretzat nortasuna eta jauntasuna bat dira.

Nor dogu aita Buenabentura Uriarte? -Bere izakera ederrari nortasuna eta jauntasuna emon eusson euskal seme jator ta bikaiña.

GORABIDEA

Aita Buenabentura Uriarte, Zeanuri'n jaioa (1891) mixiolari ospetsua eta franzizkotar gotzain santua izan zan Peru'ko mixio zelaietan.

Gaztetatik dator ari oneko mutilla, eta batez be, burua ondo jantzia eta berebiziko oroimena. Gai-

tasun onekin jabeturik gorabidea izango da bere elburua.

Franzizkotarren artean apaiztu ondoren (1917) oparo erakutsiko dau bere baliotasuna. Biblia, Teologia eta ebreu izkuntzan rnaixu argia izango da, baita be sermolari gartsua eta ekarri onekoa.

Ara emen Franzizkotarren artean izango ditun gorengo jardunaldiak: Praille etxe baten Nagusi (1924-28); Oraindik gazte dala euren Probintziala, bi aldiz; geroago baten mixiolarien arduraduna; bere gorabidea Ukayali'ko Gotzaiña izanik txapelduko dau.

Maitasuna eta buru garbitasuna oso bearrezkoak dituzu giza-semeen alde egokiro jokatzeko, baño onekin bateera, on-egiñak, erruki-egiñak, irabazten dabe erriaren ederra.

Ara emen aita Uriarte'ren lanerako garra eta ekiñaldiak: Ukayali eskualdeko mixio bazterretara ostera ugariak egiñ; mixio egitamu eta batzarrak eratu eta eragiñ; Lima'ko Gotzaiñak bialduta Kanta ta Yauyo eliz-eskualdea begiztatu; ibillaldi garratz onetan zaldi ganetik jausita lau saiets azurrak apurtuko jakoz; eliz mezulari izentaturik Ecuador eta Argentina'ko praille etxeak ikusmiratu; Erroma'n be izan zan, bi alditan, Franzizkotan'en Batzar Nagusian.

Gotzain bati dagokiozan arazoak, ardurak eta eginbearrak ondo burutzeko eten barik ekingo dau: mixiolari barriak ekarri, erri barrietan mixio etxeak eraiki, batzarrak eratu, berbaldi egokiak egiñ.

España ta Peru'ko Jaurlaritzak dedu-domiñak ezarririk goratu eben bere jardunaldi goragarria. Liburu baliotsu bat idatzi eban: "La Montaña del Peru, Estudio Etnico y Geografico".

Ukayali aldeko mixioetan bai izan zituala neke gorriak, gaxoaldi larriak, eta gurutze gogor aztunak Kristo'gaz batera esan bearko dau: "Bizitza bere lagunengaitik emotea baño maitasun aundia-gorik ez dago".

74 urtedun zalarik Lima Uriburuan Jaunaren besoetan artu eban betiko koroia ta atsedena (1967).

Omenik zintzoena Euskal seme jator oni.